



Komunitateak ekinean: gizarte inklusioko praktikak



Administrazioa, gizarte-erakundeak eta komunitatea
elkartzeko gunea, esperientziak partekatzeko eta lurraldeko
erronkei erantzun kolektiboak eraikitzeko.

Ira. 02 - Ira. 03 2026

Kod. G16-26

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2026

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Ira. 02 - Ira. 03 2026

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara Gaztelera

Balio akademikoa

20 ordu

Webgunea

<http://www.emaus.com>

Antolakuntza Batzordea



Fundación
BBVA



Azalpena

Ikastaro honek prestakuntza, hausnarketa eta topaketarako gune bat proposatzen du, lurraldean gizarte inklusiorako prozesuei lotutako praktika komunitarioak indartzera bideratua. Bi jardunalditan zehar, administrazio publikoko profesionalak, gizarte-erakundeek, komunitate-antolakundeek eta kulturaren, kirolaren edo hezkuntzaren eremuetako pertsonak lan komunitarioaren eraldaketa-ahalmena erakusten duten ikuspegiak, metodologiak eta esperientziak partekatuko dituzte.

Proposamen metodologikoak erreferentziazko hitzaldiak eta eragile anitzeko mahai-inguruak uztartzen ditu, erakunde publikoetako, akademiako, hirugarren sektoreko eta komunitateko erreferenteek osatuak. Haiek parte-hartze komunitarioaren eta gaur egungo erronken inguruko ikuspegi praktikoa eta kokatua eskainiko dute. Horrez gain, ohiko aditu-hizlari eta entzule ereduarekin apurtuko duten elkarrizketa-gune horizontalak ere izango dira, esperientzian oinarritutako ezagutza trukea eta esanahi partekatuen eraikuntza sustatzeko.

Programak, gainera, parte-hartze tekniketari oinarritutako tailer-laboretegi bat jasoko du, artea eta kultura bitartekari gisa erabiliz hizkuntzak hibridatzeko, erronka komunak aztertze eta komunitatetik abiatuta proposamen berritzaileak sortzeko.

Ikastaroaren helburua begiradak zabaltzea da, sektore arteko mugak gainditzea eta eragile anitzen arteko loturak indartzea, komunitatea gizarte-kohesiorako, erantzukidetasunerako eta ongizate kolektiboa eraikitze funtsezko espazio gisa balioan jarriz. Amaieran, parte-hartzaileei modu kolaboratiboan eraikitako dekalogo bat emango zaie, ikasitako gako eta konpromiso nagusiak jasoko dituen.

Helburuak

Esperientziak partekatzea, gizarte interbentzio komunitarioetan aurrera egiteko.

Gipuzkoako lurraldean sustatzen eta garatzen ari diren esperientzia eta tresnak ikusaraztea.

Gure lurraldeetan eragina izango duten ikuspegi parte-hartzaileago, artikulatzaileago eta eraginkorrago batetik jardun profesionala sendotzeko aliantzak sustatzea.

Antolakuntza



Lankidetzeta



Zuzendaritza



Alberto Gaston Dapena

emaus gizarte fundazioa



Jose Barreiro Garayalde

Emaús Fundación Social

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE

2026-09-02 ARTE

[Matrikula doan](#)

0 EUR

[Donostia Kultura](#)

0 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa